

Lanbide Heziketa. Euskal herriko kalitate eredua¹

Jaume Sarramona

Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila
Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa

GAKO HITZAK: Hezkuntza Sistema. Lanbide Heziketa. Teknologi Heziketa. Hezkuntzaren kalitatea.

Hortaz, azkarki aldatuz doan ingurumenari egokitzeko beharra da ekonomia globalaren oinarritzko baldintza. XXI. mendean lehiatzeko funtsezkoa da lan-indar ekoizle eta malgu bat izatea. Herrialde guztiek ezinbestez utzi beharko diete beren herritarrei bereganatzen bizirauteko eta beren bizi-kalitatea hobetzeko behar dituzten gaitasunak, lan-merkatuaren eskariekin lanik gabe utziko baitute seguruenik gaitasunik ez duten lagunak, eta langabetu kroniko bihurtuko. (Power, Colin N., 1999)

1. Lanbide heziketaren beharra eta garrantzia

Bizi garen garai honi, XXI. mende hasiera honi, izen bat baino gehiago eman zaio: garai postmodernoa, postindustrialia, globalizadorea, kapitalismo berriarena eta abar, baina deitura ugari horiek badute denek elementu komun bat: denek azpimarratzen dute aldaketa azkarreko garaiak direla —garatu samar dauden herrialdeen ikuspegitik, jakina—; motibo hortaz, arazo tekniko eta sozialek eskatzen duten konponbideak ezin izan daitezke duela hamarkada gutxi batzuk izan zirenak.

Sennettek (2000) aipatzen duen bezala, kapitalismo berriaren lanaren kontzeptua errotik aldatu da hasierako kapitalismoaren garaitik hona. Aseraino esan da malgutasunean oinarritutako lan-mundu batean ezagupenak paper funtsezkoa hartzen duela, eta ezagupen horrek, bere aldian, etengabeko al-

¹ Lan hau neurri handi batean egile honek zuzendutako talde batek «La Caixa» Fundazioarentzat Espainiako lanbide heziketari buruz egindako eta 2003ko otsailean entregatutako ikerketa baten laburpena da.

daketa nozitu duela hala garapenaren nola ikuspegiaren aldetik. Inteligentzia dugu gaur egun ekoizpen munduan aurrerapena dakarren faktorea, ekoizpen mundu horretan indar fisikoa baztertuta geratu baita eta makinak baitute egiten gaur behinola gizakiek egin behar izaten zituzten indarkak.

Jakintza da enpresen ondasun preziatuena, zeren tresnak eta makinak askoren artean partekatu ohi diren bitartean, gauza gutxi dago inork modu eskusiboan poseditzen duenik; aldiz, tresneriari etekin handiena aterako dioten «burmuinak» bereganatzea izaten da enpresen arteko lehiaren ardatza.

Gaur eguneko lanaren ezaugarriak aztertzean hala dio Davies-ek (2002): «Lan egitea gero eta lotuago dago ezagupenek baliagarritzat joak izateko ibili behar duten bidearekin, eta heziketa bera bilakatzen ari da lan mota bat, gizakiaren autoerrealizazio indibidual eta existentziala segurta dezakeena». Argi dago, beraz, ezin bereizi daitezkeela elkarrengandik lana eta ikasketa, funtsean lan egitea «ekinez ikastea» besterik ez da eta.

Kapitalismo berriaren ezaugarritzat jo ditugun printzipioak erabat aplikagarriak zaizkie Europar Batasuneko herrialdeei. 2000. urteko martxoan Lisboan egindako bilkuran esan zen Europar Batasunak buru egin behar ziola «mundualizazioan eta jakintzan oinarritutako ekonomia berri batek dakartzan erronketatik heldutako aldaketa handi bati», eta erabaki zen 2010erako helburu estrategiko bezala Europar Batasuna «jakintzan oinarritutako munduko ekonomia lehiakor eta dinamikoena bihurtu behar zela, modu jasangarrian hazteko gauza, enplegu gehiago eta hobeak izango zituena eta gizarte kohesio handiagokoa». Hori lortzeko eskatu zen ez bakarrik ekonomia bera aldatzea baizik eta, baita ere, «gizarte segurantzaren eta hezkuntza sistemen modernizatzea».

Europar Batasunaren helburuak Stockholm-eko Europako Kontseiluan aurkeztu ziren 2001eko martxoan, eta 2002an Europako Batzordeak hezkuntza eta prestakuntzari buruzko bost helburu operatibo onartu zituen 2010. urterako bete beharrekoak eta gure LHren etorkizuna erabakiko dutenak. Helburu horietan honako alderdi hauek dira aipagarriak: 1. Erdira jaistea 2000. urteko aldean eskola goizik uzten duten gazteen portzentajea; gaur eguneko EB-ko bataz bestekoa %19 da eta Espainian %29. 2. Gutxienez erdira jaistea matematika, zientzia eta teknologiako titulazioetan gertatzen den gizon eta emakumeen arteko desoreka; horretarako, hezkuntza sistemen barruan bultzatzea egin behar zaie neskei ikasgai zientifiko teknologikoak aukera ditzaten. 3. Lortzea gutxienez bigarren hezkuntzako ikasketak egin dituzten 25 urtetik 59 urtera bitarteko pertsonen bataz besteko kopurua %80ra edo gehiagora iritsi dadin; gaur egun Espainian %42ra heltzen da kopuru hori. 4. Gutxienez erdira jaistea irakurketan, matematiketan eta zientzietan emaitza txarrak dituzten 15 urteko gazteen portzentajea. 5. Bizitzan zehar hezkuntza eta prestakuntza prozesuetan parte hartutako kopurua izan dadila gutxienez lan egiteko adinean aurkitzen diren pertsona helduen %15; gaur eguneko EB-ko bataz besteko indizea %8,4 da.

Baldin jakintza bada lan munduko ondasun preziatuena, jakintza hori lortzea exijentzia bat bihurtzen da bai langileen aldetik eta bai lan-erakundeen euren aldetik ere. Hori da hain zuzen «**heziketa**» edo prestakuntza izenez ezagutzen duguna eta usaian «**lanbide**» hitzari itsatsita erabili ohi duguna. Nazioarteko terminologian, gauza bi dira heziketa edo prestakuntza, batetik, eta hezkuntza, bestetik, ezen hark lanerako prestakuntza esan nahi du eta, hortaz, helburu zehatz eta praktikoa batekin burutzen da, eta hezkuntzak aldiz pertsonaren osotasunari eragiten dio, helburu zabalagoak ditu, epe luzera gauzatzen da eta bertan dimentsio moralak funtsezko papeira jokatzen du.

Esana dago tresneriak errentagarritasunez erabiltzeko beharrezkoa dela prestakuntza egoki bat, baina prestakuntza hori bereziki beharrezkoa da hobekuntza eta berrikuntza bideak bilatu nahi direnean, ahaztu gabe hargatik lan munduarekin lotutako beste exijentzia gero eta garrantzitsuago batzuk, nola baitira laneko osasuna, ingurugiroaren zainketa, eta abar... horiek guztiak azkenean prestakuntza ekintzekin uztartuta agertzen baitira. Beraz, lan-erakundeen barruan prestakuntzak baditu bi isuri: batetik gastua da, ezinbestekoa lan jarduera eguneratua edukitzeko eta martxan mantentzeko, eta bestetik inbertsioa da, beharrezkoa proiektu berriak abiatzeko eta kalitatea hobetzeko.

Europar Batasunera itzuliz, hiritarren zirkulazio libreak ere baditu bere ondorioak lan prestakuntzaren arloan, titulazioak bateratuki ezagutuak izateko beharra dakarrelako. Horrexek esplikatzen du Lanbide Heziketa izatea Estatu kideen arteko hezkuntza arloko lankidetzaren bultzatzeko gai jorratuena. Zehazki esanda, 1992an Maastrichen sinatu eta 1995ean Amsterdamen berretsitako Europar Batasunaren itunak hiritar guztientzat aitortzen du hezkuntza eskubidea (149. artikulua) eta Lanbide Heziketarako eskubidea (150. artikulua). Hara zer dioen azken artikulua horrek: «Batasunak aurrera eramango du lanbide heziketako politika bat Estatu kideen ekintza indartu eta osatzeko, baina osoki errespetatuz heziketa mota hori antolatzeko Estatu horiei dagokien ardura», eta jarraitzen du esanez «Batasunaren ekintzak helburu hauek lortzera bideratuko dira:

- Aldaketa industrialetara egokitzeko prozesuak erraztea, batez ere Lanbide Heziketa eta birmoldaketaren bitartez;
- Hasierako eta etengabeko prestakuntza hobetzea, erraztu dadin lan mundurako txertatze eta birtxertatze profesionala; erraztu egitea lanbide heziketarako sarbidea eta bultzatu egitea hezitzaileen eta prestakuntza hartzen ari diren pertsonen mugikortasuna, bereziki gazteena;
- Sustatu egitea ikastetxe eta enpresen arteko lankidetzaren prestakuntza arloan;
- Handitu egitea Estatu kideetako prestakuntza sistemetako gai komunei buruzko informazio eta esperientzia trukaketa...»

Konstatatu ondoren Lanbide Heziketaren beharra eta premia, galde diezaiokegu geure buruari gure gizartea benetan jabetzen ote den premia horretaz eta Lanbide Heziketa behar bezala baloratzen ote duen. Errealitateak erantzuten digu Lanbide Heziketari beti begiratu izan zaiola hezkuntza sistemako «arrotea» bezala eta ez azken aldiko arautegiak ez eta lanbide heziketa bultzatzeko programa orokorrak ez direla gauza izan balorazio hori erabat aldatzeko. Egoera horrekin baduke zerikusirik Lanbide Heziketa aukeratzen duten ikasle batzuen errendimendu akademikoa ez izatea batxilergoa egitea aukeratzen duten ikasleena adinakoa. Izan ere, batxilergoa edo unibertsitateko ikasketak egitea aukeratzen dituzten ikasleek dauzkaten lan aukeren aldean Lanbide Heziketak aukera hobeak eskainirik ere, gizartean sustraituta dagoen ustea da ondoen prestatuta dauden ikasleen ibilbide akademiko logikoa batxilergoa egitea dela, hainbestearino non Lanbide Heziketako ikasketak ikasle «ertainentzat» erreserbatuta geratzen baitira, salbuespen ohoragarri batzuk kenduta. Gertatzen da, baita ere, soldata oneko lanpostu bat eskuratzeko menturak anitz gazte atzeratzen dituela prestakuntza prozesuaren bidean aurreratzetik, nahiz eta bide horretatik segurtatua izango luketen kalifikazio hobe bat lanpostuan. Turismo guneetan ikusi ohi da fenomeno hori.

Horrezaz gain, Bigarren Hezkuntzako irakasleek izan ohi duten kultura akademikoaren kausaz irakasle horiek joera daukate euren ikasleak batxilergorantz bideratzeko, horixe baita irakasle horiek ondoen ezagutzen eta baloratzen duten bidea; bestalde, paper garrantzitsua jokatzeko dute baita ere familietan dabilzan usteak, zeinen arabera prestakuntza tekniko-profesionalean sartuz baino etekin ekonomiko hobeak atera omen daitezke unibertsitateko ikasketak eginez. Katalunian Lehen Hezkuntzako ikasketei buruz 1999an egindako azterketako datuen arabera, galdetutako familien %76ak esperantza dute euren seme-alabak unibertsitateko joango direla.

Argudio asko eman litezke Lanbide Heziketaren balioa defendatzeko lan eta are ikasketa aukera bezala, posible baita Lanbide Heziketatik unibertsitateko ikasketetara pasatzea eta, seguru asko, arrakasta aukera gehiagorekin zuzenean batxilergotik heldurik baino, baina errealitate legal eta objektiboek talka egiten dute aurreiritziekin eta tradizioarekin.

Prestigio sozialaren bidean aitzinatzeari dagokionez, berrikitan onartutako legeek —Hezkuntza Kalitatearen Lege Organikoak eta Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Lege Organikoak— Lanbide Heziketaren etorkizuna markatuko dute euren planteamendu hein bat kontrajarriekin. Ezen, batetik, aurreneko legeak ateak zabaltzen ditu ikaslea Lanbide Heziketara gidatuko duten ibilbideak antolatzeko DBHn, eta hori nekez egingo da errendimendu akademiko onena duten ikasleekin, eta, bestetik, bigarrenak Lanbide Heziketa indartu nahi du indarrean dauden hiru sistemak —prestakuntza arautua, lanbide heziketa eta etengabeko prestakuntza— integratuz eta lan munduko errealitatearekin lotura estuagoak bultzatuz.

2. Indarrean dagoen hezkuntza sistemako lanbide heziketa


Gogora dezagun laburki zein den Lanbide Heziketaren gaur eguneko egitura. Gaur eguneko Lanbide Heziketak bi kontzeptu osagarri bereizten ditu:

- Oinarrizko Lanbide Heziketa**, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) eta batxilergoan irakatsia.
- Lanbide Heziketa Espezifiko**a, Maila Ertain eta Goi Mailako Heziketa Zikloetan irakatsia.

Oinarrizko Lanbide Heziketaren bidez lanbide sorta zabal baterako zeharkako ezagupen batzuk irakasten dira, baliagarriak direnak lan munduan txertatzeko eta baliabide teknologikoak erabiltzeko. Lanbide Heziketa espezifikoaren bidez esparru profesionaletik hurbil dauden lanbide sorta zabal batean lan egiteko ezagupen multzo bat irakasten da. Ikasketa horiek prestakuntza ziklo ezberdinetan gauzatzen dira eta ziklo horiek lanbide-multzoka (garai bateko adar profesionalak zirenak) egituratuta daude eta oinarri komuneko lanbide prestakuntza eskatzen duten lanbide sorta batzuei buruz bideratuta daude. Planteamendu polibalente honek ezberdintasun bat dakar Lanbide Heziketaren eredu zaharraren aldean, zeren azken honetan lanbide bakar batean lan egiteko prestakuntza ematea bilatzen zen bitartean, oraingo ereduan elkarren kideko diren lanbide sorta batean aritzeko ezagupenak eman nahi baitira, aintzat hartuz ingurumeneko ekoizpen egituraren izaera askotarikoa eta ingurumen horretan gerta daitezkeen aldaketak.

Lanbide Heziketarako sarbideak aldaketa handiak nozitu zituen LOG-SErekin ere: eskola-ziurtagiri soila eskatzen pasatu zen DBHko graduatu titulua eskatzera maila ertaineko prestakuntza zikloetarako, eta batxilergo goi-mailako prestakuntza zikloetarako. Aukera ematen da, baita ere, lan esperientzia eta gutxieneko adina eduki ezker azterketa bidez sartzeko Lanbide Heziketara. 2002ko Kalitate Legeak ez du aldatu planteamendu hori, aitzitik, malgutasun gehiago sartu du maila ertaineko eta goi-mailako prestakuntza zikloetara sartzeko prozeduretan.

Jarrera ezberdin horietatik ikusten den bezala, eztabaidaren muina da nola uztartu aukera berdintasuna, batetik, eta hezkuntza maila batera heltzeko edozein sarbide sistemari eskatu behar zaion prestakuntza exijentzia, bestetik. Oro har, nagusi dabil «pasabide» tankerako —edo, batzuk esaten dioten bezala, «irriztu» tankerako— sarbiderik ez onartzeko joera, horien kalitate eskasez eta Lanbide Heziketaren maila goratzeko ahaleginari dakarkioten laguntza eskasarengatik. Etorkizunean aztertu egin beharko da ikasleen bilakaera, prestakuntza eta lan-munduratzeko maila, atera ahal izateko gero behar diren konklusioak Lanbide Heziketako maila ezberdinetarako sarrera gidatu behar duten baremoei buruz.



1. irudia

Gaur eguneko hezkuntza sistemaren eskema

Kolektibo askoren hitzetan, maila ertaineko zikloak hezkuntza sistema-ko «bide itsu» batzuk dira, goi-mailako prestakuntza zikloek baino askozaz lan-munduratzeko maila txikiagoa daukatelako. Horren arrazoiatariko bat izan daiteke enpresarien artean gutxi ez dutela eskatzen titulazioa, Suitzan edo antzeko beste zenbait lekutan egiten den bezala, non ia ezinezkoa den titulaziorik gabeko inongo espezialistarik kontratatzea lan munduko inongo sektoretan. Aldiz, gure artean zenbait sektoretan, esaterako banketxeetan, hastetik beretik eskatzen dute unibertsitateko lehen ziklo bat are batere zailak ez diren lanak egiteko, eta ohitura hori, ikusirik merkatuan dagoen unibertsitarioen eskaintza, biziki kaltegarria da Lanbide Heziketa-ko titulatuentzat.

Konparatiboki, eta ikusirik daukaten espezializazio maila, Goi Mailako Heziketa Zikloak egiten ari diren ikasleen lan-munduratzeko maila oso handia da, hainbestera non ikasketa horiek anitz sektoretan benetako eta ondo ordaindutako alternatiba bat bihurtzen baitira Unibertsitateko ikasgentzat. Gainera, duela gutxi arautegi batzuk onartu dira Autonomia Erki-degoetan bidea ematen dutenak zikloetan eskuratutako kredituak pareko unibertsitate programetan kapitalizatu daitezkeen kredituekin baliokidetzeko.

ko; bide hortaz ikaslea motibatzen da eta askok aukeratzen dute espezializazio bat zeinaren bidez posible izango duten gero ikasketak eta lana bateratzea. Ahaztu gabe, gainera, anitz ikaslek goi mailako heziketa unibertsitatara iristeko baliatzen dituztela.

Lanbide Heziketaren eskaintzari begiraturik ikusten da desfase bat dagoela lan munduko beharrezanaren aldean, sektore batzuetan ikasleek eskari gutxi egiten baitituzte (nekazal edo garraio kudeaketa arloan, esaterako) eta beste batzuetan aldiz, hala nola komunikazio edo irudi eta soinu arloan, eskariak gehiago dira merkatuak eskaintzen dituen lanpostuak baino. Gertatzen dena da zerbitzu sektoreko lan eskabide handiagoak (matrikula guztien %70eraino iristen da) zuzenean islatzen duela lan sektore ezberdinen pisu-banaketan gertatu den aldaketa, desfase batzuekin izanik ere, nola baita matrikula mantentzea administrazio eta komertzialaren adar zaharrarekin lotutako esparruetan, zeinak oraindik %40ko indizeak mantentzen dituen, gaur eguneko errealitateak inondik halakorik justifikatu ez arren.

Kontuan izan beharreko beste faktore bat da ez dagoela hizkuntza arrotzen derrigorrezko modulurik. Gai hori jadanik asumituta dago Europar Batasuneko herrialde guztietan, baina Espainian oraindik gauzatzeke dago. Kontu hori oztupo handia da ikaslearen hizkuntza normalizazioarentzat, nahiz eta Lanbide Heziketako Lege berriak garatu beharreko faktoretzat jotzen den.

3. Gaitasunen zertifikazioa

Baina espezialitate bat aukeratzea urrats garrantzitsua bada ere, lan merkatuaren malgutasun eta aldaketa etengabeak beharrezkoak egiten ditu aldaketa batzuk heziketan, bereziki etengabeko prestakuntza eta Lanbide Heziketari dagokienez. Horientzat erreklamatzan da (PYMES-SEFES Kataluniako enpresariaren erakundearen hitzetan) «*etengabeko prestakuntzako sei ikasturteren batuketa ez dadin izan azkenean zero*». Hala sartzen gara gaitasunen akreditazioaren gaiari, gaurkotetasun guztizkoa une honetan nola etorkizunean.

Lanbide Heziketa Garatzeko Zentroaren ekimenez (LHGZ), Kualifikazioen Transferentziarako Europako Foroa sortu zen 1998ko azaroan. Foro horretatik ekimen batzuk sortu dira, hala nola *curriculum* europarraren formatu bat sortzea edo EUROPASS lanerako pasaportearen formatuak, lanerako akreditazioarako balio duena eta zeinaren bitartez akreditatzen den Europar Batasuneko Estatuetan gaitasunak lortu izana. Gaitasunak akreditatzeko prozesua herrialde bakoitzeko prestakuntza arautuaren sistema eta egituraren argitan aztertu behar da, sistema horrexek erabakitzen baitu nolako aukerak dauden esparru formalean nola informalean lortutako gaitasunak baliokidetzeko.

Gure mundu akademikotik ikuspegi honek galdera batzuk sortarazten ditu, batez ere ziurtagiriak ematerakoan erabili beharreko koherentzia eta

derrigortasun irizpideei dagokienez. Irakasleen artean jaso ditugun iritzien arabera bakarrik ikastetxe ofizial eta ezagutu batek bermatuko lituzke ikasleei eskatu dakizkiekeen prestakuntzako betebeharrak. Irakasleok diotenez, bi dimentsio harmonizatu behar dira:

- Malgutu beharra dago prestakuntza sistema, ekoizpen sistemaren beharretara egokitzeko.
- Oreka bat bermatu behar da zertifikatutako gaitasunen eta ikuspegi akademikotik eskatu daitekeen prestakuntzaren artean.

Dikotomia horrentzat erantzunak izan ditu aurrekari batzuk akreditazio eta homologazio sistemetan tradizio eta esperientzia handia duten Erresuma Batua bezalako herrialdetan, non oso emaitza positibo eta integratuak lortu diren.

4. Lan praktikak

Oro har, enpresarietako satisfazio handia erakusten dute ikasleen praktikaldiekin. Iruditzen zaie bide ona dela hori langile berriak enpresaratzeko eta enpresaren lan teknikak modernizatzeko. Euskal Autonomia Erkidegoa aitzindari dugu arlo honetan, bera da-eta Erkidego guztien artean enpresarien partaidetza handiena iritsi duena. Era berean, lurralde askotan zaila da sektoreko enprekin kontaktatzea, batez ere baserri guneetan, non zailagoa den sektore pribatuko lankidetzaren lortzea. Administrazioetatik lanean ari dira Lanbide Heziketa ezagutarazi eta enprekin kontaktatu beharrez probintzia eta eskualde mailako azokak antolatuz sektoreko berritasunak zabaltzeko eta Lanbide Heziketaren munduan egiten ari den lana plazaratzeko. Beste bide bat da sektore guztiak inplikatzeko Lanbide Heziketa Garatzeko Programetan, Katalunian edo Valentziako Erkidegoan egin den bezala.

Erreferentzia legala bezala, merezi du aipatzea ikasleek badaukatela modua, homologazioak eta lan-zirkulazio libreak eskaintzen dizkieten aukerak baliatuta, euren praktikak Europako Estatuetakoa lantegietan egiteko. Horri dagokionez, Autonomia Erkidego bakoitzak badauka bere arautegi propioa, nahiz eta finantzaketa sistema eta prozedura denetan oso antzekoak izan. Egonaldiak aste bitik lau astera bitartekoak izaten dira batzuetan, baina aukera dago luzaroago egoteko zentro bakoitzerako aurkeztu diren proiektuen arabera. Eskuarki, programa europar hauetan oraindik jende gutxi hartzen du parte, batetik ez delako programa horien zabalkunde masiborik egiten eta, bestetik, hizkuntza arazoak daudelako —arazoak ikasleentzat eta arazoak irakasleentzat. Alta, egonaldi horiek egin diren kasuetan —Europako lanbide heziketako trukaketak arautzen dituen Leonardo programaren barruan, alegia—, satisfazio maila handia izan da. Adibidez, eta partaidetza maila altuena daukaten Erkidegoak aipatzearen, 2001-2002. ikasturtean Euskal Herriko 280 ikasle eta Catalunyako 1.000 bat ikasle

hartu zuten parte trukaketa horietan. Trukada hauek kurrikulum «bereiz-garri» bat ematen dute, ikasle bakoitza pertsonalki aberasteaz gain abantaila argia bihurtzen dena lan bat lortzeko garaian.

5. Irakasleak

Lanbide Heziketako irakasleek badute erronka bat: lan munduan indarrean dauden azken tekniken berri izatea. Batzuen ustez eginkizun hori uztar ezina da funtzionarioen egiturarekin.

Bestalde, bultzatu egiten dira irakasleen egotaldiak Administrazioak subentzionatzen dituen sektoreko enpresetan, egotaldi horietako asko irakasleen lanorduetan izaten dira eta. Nahiz eta Autonomia Erkidego bakoitzak bere irizpide propioak izan, oro har egotaldiak aste bitik lau astera bitartekoak izaten dira —denbora gutxi inondik ere parte-hartzaile gehienek iritzi. Urtero egiten da deialdi bat horrelako egotaldietarako; adibidez, 2001-2002. ikasturtean Katalunian 300 postu eskaini ziren eta Valentziako Komunitatean 140 postu; Valentziaren kasuan beste 70 postu gehitu behar dira Europako enpresetan 10 egunerainoko egotaldiak egiteko.

Lanbide Heziketako lege berriak aukera ematen du lan sektoreko adituak kontratatzeko aldi baterako, ikastetxeetako irakasle jardun daitezten. Konponbide horrek bidea irekitzen du irakasle lankide horiek lan sektoreko esperientziaren beharra daukaten edukiak irakatsi ditzaten. Logikoaenez, neurri hau lagungarri gerta liteke ekoizpen munduko adituen ekarpenarekin sistema malgu eta profesioa «oxigenatzeko». Autonomia Erkidego zenbaitetan neurri hori obratan ematen ari da dagoeneko, batez ere sektore tekniko eta industrietan. Euskadiko Autonomia Erkidegoa dugu horren adibidea. Hala, aipagarria da Elgoibarko (Gipuzkoa) Makina Tresnaren Institutuko esperientzia. Zentro horretan 75 kanpoko lankide dituzte, Prestakuntza Arautuz bezala etengabeko heziketaz eta Lanbide Heziketaz ere arduratzen direnak. Valentziako Komunitatean ere, beste Erkidego batzuetan bezala, indarra ematen ari zaio aditu edo irakasle espezialista delakoaren figura honi, zeina kontratu finko batekin ari izaten baita lanean irakasle taldeekin batera eduki espezifikoko kreditu batzuk ematen, irakasle ohikoek nekez baizik emango litzuketanak.

Kanpoko lankideekin egin diren saioek etekin ona eman badute ere, irakasleen sindikatuak zuhur agertzen dira neurri hauei buruzko iritzia ematerakoan. Izan ere, adituen lankidetzari baliatzeko estrategiak ondorio bat baitakar: ikastetxeetako zuzendaritzak langileak bere gisa kontratatu ahal izatea. Sindikatuen ustez, kontratazio molde horrek aldatu egin lezake plantillen asignazio prozedura, irakaskuntza eta akademia-merituetan oinarritutako egituraz zeharo ezberdina den «enpresa pribatuko» eredu jakin batzuk erreproduzitzeraino. Erkidego batzuek, Kataluniak bezala, neurri batzuk hartu dituzte dagoeneko gai hori arautzeko, eta gehieneko ordu kopuru bat ezarri die ikastetxeaz kanpoko adituei irakasle gisa jarduteko.

6. Ikasleak

Lan esperientzia zertifikatu eta baliokidetzeko sistema bere hasi-masietan dagoenez, Prestakuntza Arautuko ikasleen profila osatzen ari da oraindik. Etorkezun hurbil batean lan esperientzia duten pertsonen modulu profesional isolatuak ikasi ahal izango dituzte eta horrek ikasgeletako eguneroko errealitatea goitik behera aldatuko du. Oraingoz, ikasten ari diren ikasle gehienak eskola adinekoen multzoan aurkitzen dira (DBH eta batxilergoko ikasleak). Etorkezunean, Lanbide Heziketa Arautuak honako erronka hau izango du: prestakuntza eta gaikuntza hartutako populazio multzoak bere baitan jasotzea eta ikastetxeetan kalitatezko birkualifikazio profesionalerako bide bat eskaintzea.

Hezkuntza Ministerioaren datuen arabera (2001), Espainia osoan Prestakuntza Arautuko matrikulak, matrikula guztien %31 dira. Gorakada bat antzematen ari da matrikuletan, baina oraindik lan asko egin beharko da Lanbide Heziketako tradizio handiko beste herrialde batzuetako mailetara iristeko. Adibidez, Frantzia Lanbide Heziketako matrikulen kopurua %57,2koa da, iparraldeko herrialde gehienetan bezalatsu alegia, eta Austria berriz %70,6ra iristen da, portzentaje handiena bera.

1. taula

Lanbide Heziketa Arautuko ikasleen estatistikak 10 urteko ikuspegian

Ikasturtea	Ikasketak	Estatua	Katalunia	EAE
1992-93	EMHZ/LH 1	449.628	92.875	15.543
	GMHZ/ LH 2	436.282	72.598	32.784
2002-03	EMHZ	222.050	30.614	11.340
	GMHZ	227.714	32.559	18.947

Familia profesional ezberdinetako matrikulei dagokienez, ohiko jarrera mantentzen da sexukako banaketari dagokionez eta ez da antzematen ezberdintasun nabarmenik Europar Batasuneko beste herrialdeetako datuen aldean. Zerbitzu sektorean emakumezkoak dira nagusi (irudi pertsonaleko zirkloak, esaterako) eta teknologiek in lotutako sektoreetan aldiz gizonezkoak dira gehiago. Lanak aukeratzekoan sexu berdintasuna bultzatzeko zenbatnahi kanpaina eginagatik, datuek erakusten dute zaila dela lanbideak modu estereotipatuan sexuka banatzera daraman tradizio sexista hori haustea.

7. Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) erabilera lanbide heziketan

2000. urteko Lisboa adierazpenaz geroztik Europar Batasunak 16 jardueraren esparru —adierazle— ditu, bere Estatu kideek ekimen preferenteko jardueraren eremu bezala onartuak; horietako batean espreski aipatzen da IKTen

erabilera. Geroago, 2002ko Bartzelona eta Sevillako gailurretan, berretsita geratu ziren Batasunaren helburu horiek, sektore publikoa izan behar zela-koan aldaketaren motorra, batez ere *on-line* motako irakaskuntzan, telemedi-kuntzan eta administrazio elektronikoa. Baditu jadanik zenbait urte (1997) Miguel Castells teknologia arloko aditu ezagunak iragarri zuela informazio gizartean bipilki sartzen ez diren jende eta herrialdeak baztertua geratuko direla dagoeneko itzuriezina den prozesu batean. Hori guztia, «pitzadura di-gitalak» deitu diren horiek hausteko.

Baldin esan dugunak hezkuntza orokorrerako balio badu, hainbat be-harrezkoagoa izango da Lanbide Heziketako edozein adarri gagozkiola. Izan ere, IKTak lan gutxi-asko kualifikatu guztietan presente baitaude eta askotan lanaren ardatz bilakatu dira. IKTak erabiltzeko prestakuntzarik ez duena ez dago gaituta lan gaurkotu eta kualifikatu batean jarduteko. Hor-taz, prestatzaileek erronka bikoitza daukate aurrean: batetik, IKTak irakas-kuntzan sartu behar dituzte euren prestakuntza ahalmena garatzeko, hala lan indibidualean nola talde lanean, eta bizitzan zehar ikasten jarraitzeko ohiturak sendotzeko oinarri gisa; bestetik, lanerako prestakuntza bat garatu behar dute teknologiaren presentzia nabarmen batez hornitua, halakoxea de-lako era guztietako lan erakundeetako errealitatea.

Esan gabe doa, IKTak erabiltzekotan baldintza material batzuk behar dira. Bai Lanbide Heziketako zentroek eta bai lantokietako «ikasgelek» do-tazio egokiak behar dituzte. Horri buruz egin daitekeenaren adibide on bat dugu 2002ko irailean Euskal Autonomia Erkidegoan muntatutako 10 ikas-gela digitalak, beste hainbeste Lanbide Heziketako zentro elkarrekin konek-tatzen dituztenak sarean. Etengabeko prestakuntzari dagokionez, Espainia-ko Enpresari Elkarten Konfederazioak 2000. urte hondarrean eta 2001eko lehen hiruhilekoan egindako azterketa baten arabera, etengabeko presta-kuntzaren heren bat tresneria informatiko, multimedia eta interneten lagun-tzaz egiten zen, eta teknologia horien inplantazio erritmoa handiagoa zen enpresa handietan (Kordoba, 2002).

IKTen nagusitasunak ez du egiten bakarrik teknologia horien erabilpe-na lan mundura zabaldu; bidea ematen du orobat ikasten jarraitzeko *e-lear-ni*ng delakoak ematen dituen aukera gero eta handiagoei esker. «Ikasgela birtuala», «campus birtuala» eta antzeko izenak usaiako gauza bihurtu dira dagoeneko eta bidea ematen dute, besteak beste, simulazioak aplikatzeko egoera erreal konplexuetara, «in situ» tankerako prestakuntzaren ez arris-kurik eta ez kosturik gabe. Delako «*e-learning*» hori gero eta gehiago era-biltzen ari da enpresetan eta uste da heldu diren bost urtean erabilera indize altuetara iritsiko dela, ondorio gisa ekarriz prestakuntza lantokian bertan bu-rutu ahal izango dela, IKTek eskaintzen dituzten aukerei esker preseski.

Bada ordea IKTen erabileraren beste ondorio bat: **telelana**. Mundu gehienak onartutako telelanaren definizio baten arabera, telelana da ekoiz-pen edo zerbitzu zentrotik urrun gauzatzen den lan jarduera bat zeinetan informazioa bideratu eta tratatzeko teknologia modernoak erabiltzen diren

esan delako zentro horretako gainontzeko langileekin komunikatzeko. Beraz, nahiz eta eskuarki telelana norberaren etxean egiten den, ez dira nahastu behar telelana eta etxetik egiten den lana; komunikazio azpiegitura bat erabiltzea da bi lan mota horiek elkarrengandik bereizten dituen faktore giltzarria. Komunikazio azpiegitura horrek posible egiten du langile eta enpresaren arteko komunikazioa atxikitzea eta sarbidea erraztea enpresako informazio sistemetara. Egiten den lanak ez du zertan berritzailea izan behar: ohiko markotik kanpo egiten dela da bere berritasun bakarra. Mantedu egiten da, beraz, langileak enpresarekiko daukan dependentzia harremana, baina ez dira aplikatzen zentro barruan ohikoak diren kontrol sistemak: ordutegi estua, kokaleku finkoa, eta abar. Indarrean mantentzen dira, hartatik, errendimendu orokorrari dagozkion kontrol sistemak.

Telelanak lan paradigmaren aldaketa bat dakar eta gure garaiotako ezauzgarri bihurtu diren antolaketa arloko aldaketen testuinguruan kokatzen da, garaiotan gehiago baloratzen baitira pertsona arduratsuak ezenez agindubetetzaile hutsak, adituak ezenez espezialistak, ezagupen «modelatuak» baina ez errezeta espezifikokoak, gizarte trebetasun arduratsuak eta gizarte trebetasun itxurazkoak (Civit eta March, 2000). Gainerakoan, telelanaren dinamikak lotura zuzena dauka hainbat faktoreekin, horien artean hauek: zerbitzu sektorearen gorakada (are «sektore kuarternarioa» izenez deitu den informazio eta komunikazio teknologien sektorearen garapena), enpresen txikitzea, enpresen desegituraketa, enpresen kostu finkoen murrizketa, ekonomiaaren izaera nazioartekoaren handitzea eta enpresa multinazionalen garapena, azpikontratazioa, peritazio eta aholkularitza jardueren garapena, laneko indibidualtasunaren estimua —non ez den jaurespena—, eta abar. Gaur egun klase profesional ertainak (managerrak, administrariak, eta abar) ari dira gehienik telelanean.

Telelana tresna egokia da baita ere baserriguneak suspertzeko, aukera ematen baitu gune horietara bizitzera joateko lanaren zati handi bat bertatik egitea posible den ber. Udalerrri batzuetako eta Katalunia bezalako Erkidego batzuetako programa batzuk bide horretatik jo nahi dute.

8. Lanbide heziketako zentro integratuak

Legeria berriak integralitatean oinarritutako Lanbide Heziketako sistema bat antolatzeke neurriak ezartzen ditu. Integralitate hitzez aditzen da Lanbide Heziketako hiru motak koordinatuko dituzten ekintzak koordinatzea helburu hauek lortzeko: batetik, ikasketa-bide ezberdinetan eskuratzen diren gaitasun profesional guztietako ebaluazio eta akreditazio helburuak lortzea, eta, bestetik, bizi guztiko ikasketa erraztea. Legearen 11. artikuluan zentro integratuko sare bat sortzeko prozedura arautzen da. Sare horretako zentroek Lanbide Heziketako azpisistema guztiak irakatsiko dituzte eskaintza bakarreko eredu bati jarraituz. Zentro sare horretako irakaskun-

tza ekoizpen sektoretan espezializatu beharko litzateke segurtatzeko bermatu egiten dela espezializazioa lan esparru ezberdinetan².

Europako erreferentziei dagokienez, aipagarria da Erresuma Batua edo Herbehereak bezalako herrialdeetako tradizioa, non prestakuntzako zentro arautuak (PZA) sortu ziren 1998. urtean. Zentro horietan prestakuntza ikastaroak ematen zaizkie helduei eta lanean ari diren profesionali. Zentro horiek eskumena daukate euren ziurtagiri azterketak egiteko, ikasleak pilatu ditzakeenak Estatu mailan ezagutuak diren tituluak lortu arte. Bestalde, hezkuntza erakunde eta sektore industrialen arteko lankidetzaren ondorioz 1999an eskualde mailako teknozentroak sortu ziren, zeinetan parte hartzen duten hezkuntza erakundeek, enpresek eta toki agintariak.

Gure Estatuan Lanbide Heziketan inplikaturako kolektibo gehienek airtortzen dute Zentro Integralen (ZI) sare bat bultzatzeak duen garrantzia, bertan baliabide espezializatuak eskuratzeko, irakasleak birziklatzeko eta finantzaketa-bideak aurkitzeko sektoreko enpresetako hitzarmen espezifikoek bitartez, enpresa horiekin posible izango bailitzateke baita ere enpresek eurek ematen eta finantzatzen lagundutako ikastaroen zertifikazio akademiakoak koordinatzea. Era horretan posible egiten da zentro horiek Fundazio bat izan dezaten (Elgoibarko Makina Tresnarena) zentroa finantzatzen eta zentro barruan arautu gabeko irakaskuntza kudeatzen laguntzeko. Autofinantzaketarako bidea ere ematen du.

Ziek (Centros Integrales) hezkuntzaren kalitatea hobetzen dute, irakaskuntza enpresen errealitatera hurbilarazten dute eta edukiak moduluka egituratzen laguntzen dute Lanbide Heziketako bide edo azpisistemen arteko akreditazio eta baliokidetzen bitartez.

Bizkitartean, ZIen errealitatea eta, batez ere, horiek martxan jartzea ez da lan erraza. Kontsultatu ditugun kolektibo batzuek errezeloak adierazi dizkigute proposamen horren bideragarritasunaz. Euskal Herria kenduta, non enpresa sektoreak proposamenarekin bat egin duen eta laguntza handia ematen ari den lankidetzaren eta inbertsio aldetik, beste Erkidego batzuetan enpresa sektoreak mota horretako zentroak martxan jartzeak ekar ditzakeen arazoak baizik ez ditu ikusten. Adibidez, Valentziako Enpresarien Konfederazioak uste du funtsezkoa dela ikasketa mota bakoitzaren helburu espezifikoak errespetatzea eta kasu egitea bakoitzaren helburuak ez daitezen urtu mota bakoitzari dagozkion edukirik gabeko planteamenduetan.

Zentro integratuen sorrera uztartuta dago hezkuntza administrazioko botere deskontzentrazio eta delegazioarekin; zentro horien bitartez kudeaketa autonomia maila handi bat ematen zaie ez bakarrik ikastetxeko egiturei, baizik eta bereziki zuzendariari, hau da, ikastetxea kokatuta dagoen ekoizpen ingurumenaren arabera ikastetxeko antolakuntza eta kudeaketa

² Kontua da hau Ministerioak proposatu duela eta ondorioz Kataluniak Legea Konstituzio Epaitegira eraman duela eskuduntzak inbaditzen zaizkielakoan.

gidatzen duen elementu giltzarriari. Horregatik da funtsezkoa zuzendari taldeentzat prestakuntza planak berrikustea eta gorago aipatu diren betebeharren arabera prestakuntza eta hautaketa proposamenak —beste hezkuntza mailetakozuzendariei aplikatzen zaizkien ez bezalakoa— diseinatu eta taxutzea.

Irakasleek ere aldatuta ikusiko dute euren zeregina hiru mota edo azpisistemetan irakatsiko duten heinean. Batzuei iruditzen zaie errealitate hori Administrazioak irakasleei ematen dien plurilanerako aukera bat dela, eta horrek kritika batzuk eragin ditu irakasleen artean, zalantzan jartzen baitute planteamenduaren atzean ezkututzen den asmoa eta kalitatearen lepotik giza-baliabideei errentagarritasuna ateratzeko antolatutako sistema baten egokitasuna. Hala, irakasle guztiek aho batez gaitzesten dute azkenean irakasle berberak amaitu ahal izatea irakasten «prestakuntza arautua goizez, lanbide heziketa arratsaldean eta etengabekoa gauez».

Nolanahi ere, aztertu egin beharko dira sistema egoki batzuk irakasleen eskubideak kolpatu gabe irakasleentzat partaidetza sustatuko dutenak hezitzaile espezializatu gisa. Horri buruz hartu dira jadanik neurri batzuk Euskal Herrian, non Lanbide Heziketako ordubeteko lanak prestakuntza arautuko ordu bete t'erdia balio duen. Horrenbestez, ezagututa geratzen dira dedikazio maila ezberdinak, irakaskuntzako zeregin eta langintza ezberdinen arabera arautu eta ordainduak. Esparru horretan azpimarragarria da irakasleentzat obratu beharko den jarrera eta mentalitate aldaketa parte hartuko badute arautu gabeko Lanbide Heziketaren beharrezanetara egokitzeko prozesuan, zeinak eskatuko duen ingurumeneko beharrezanetan jarraipen eta propektiba lan bat egitea programen egokitasuna bermatzeko.

9. Lanbide heziketaren kalitatea

Gaur egun kalitatea ikusten da zein-eta bezeroaren beharrezan eta existentsia betetzera bideratutako erakunde batek eskaintzen dituen zerbitzuak etengabe hobetzera daraman prozesu bat bezala. Bezeroa eta bere beharrezan bilakatzen dira erakundearen zentro: hori da hain zuzen kalitatearen kudeaketa deitzen zaiona.


Hezkuntzan ere guztizko kalitatea bezeroan zentratzen da, kasu honetan bezeroak honako hauek direla: ikasleak edo parte-hartzaileak, sendiak eta enplegatuak (barruko bezeroak), eta bigarren eta goi hezkuntzako ikasitxeak, enpresak, lan merkatua eta gizartea oro har (kanpoko bezeroak).

Azken urteotan kalitatea Lanbide Heziketaren ardatz bihurtu da. LOGSEk berak zehazten zuen hezkuntzaren kalitatea lortzea lehen mailako helburu bat zela eta esaten zuen kalitatea zela hezkuntzak etorkizunean izango duen erronka nagusietariko bat. Orain, Lanbide Heziketaren eta Kualifikazioen Lege Organikoak ere kalitatea bihurtzen du Lanbide Heziketaren berrikuntzako ardatz eta muin.

Badira kalitatea kudeatzeko hainbat sistema, dela sarien bidez edo dela kalitatearen zertifikazio sistemen bidez. Horien artean hezkuntzan usuenik aplikatu direnak Kalitatearen Kudeaketarako Eredu Europarra (KKEE) eta ISO arauak dira. Eredu bietan autoebaluazioa da ardatza, autoebaluziotzat ulertuz erakundearen beraren prozesu, jarduera eta emaitzen azterketa sistematikoa eta bikaintasun-eredu batekiko konparazioa. Autoebaluazioa autodiagnostikoaren sinonimoa da, eta autodiagnostiko hori erakundeekideek egiten dute puntu ahulak eta indartsuak identifikatzeko eta guztizko kalitatera iristea ahalbidetuko duten hobekuntza-estrategiak martxan jartzeko. Horregatik, kalitatea kudeatzeko ereduak oso tresna baliagarriak izaten dira erakundeentzat, baliabide oso zorrotzak eskaintzen dizkietelako zehatz ezagutzeko zein puntutan aurkitzen diren bikaintasun enpresarialerako garapen bidean.

KKEE ereduia 1988an sortutako Kalitatearen Kudeaketarako Fundazio Europarrak ezarri zuen 1992an. Eredua bi zatitan banatzen da: zerbitzu edo produktu bat egiteko behar diren baliabide edo eragileak, batetik, eta emaitzak edo eskaintako zerbitzuak, bestetik. Zati bakoitza ebaluatu beharreko zenbait elementuk osatzen dute, eta elementu horiei puntuazio zehatzak esleitzen zaizkie euren garrantziaren arabera:

- Bai zentroaren eta bai edozelango erantzukizunen bat daukaten pertsona guztien lidergoa edo zuzendaritza; hauek osatzen dute kalitate prozesua bultzatu eta sustatu beharko duen taldea.
- Zentroa osatzen duten lagunak, haren kudeaketa, partaidetza mekanismoak eta horren guztiaren optimizazioa.
- Politika eta estrategia, elementu hauetan zentratua: bisioa, misioa, baloreak eta zuzendaritza estrategikoa.
- Zentroak dituen baliabide material eta finantzazkoak eta nola kudeatzen diren.
- Zentroan egiten diren prozesuak, euren kudeaketa, kontrola eta ahal bada hobekuntza.
- Bezeroaren nahiz zerbitzuaren onuradunaren satisfazioa, hau da, bezeroak/onuradunak daukan sentipena jaso duen zerbitzuaz.
- Langileen satisfazioa erakundearen zenbait elementurekiko, hala nola ingurumena eta lan baldintzak, zuzendaritzarekiko komunikazioa eta harremanak, erabakiak hartzeko prozesuetako partaidetza, eta abar.
- Gizartearen gaineko eragina edo gizarteak zentroaz daukan sentipena, eta gizartean eragin zuzena daukaten zentroak burututako jarduerak: ingurumenaren hobekuntza, hiritarren prestakuntza, inplikazio aktiboa gizartean...
- Zentroaren emaitzak, hau da, identifikatu egitea zer lortu den zentroarekin harremanetan ari diren lagunen beharrian eta usteak asetuz. Ikastetxeen kasuan aurrekontuaren kudeaketa eta kontrola eta irakaskuntza-ikasketa prozesuen emaitzak baloratzen dira.



2. irudia

KKEE kalitate kudeaketako ereduaren eskema

Beste eredu bat dugu ISO 9000 arau sistema, erakunde baten produktu zein zerbitzuen kalitatea segurtatu edo bermatzeko arau multzoa, alegia. Arau multzo honek irizpide eta baldintza batzuk deskribatzen ditu erakundeak jarraitu behar dituenak segurtatzeko bere prozesu, produktu eta zerbitzuak egokienak direla. Erakundeek arau horiek zehaztu eta betetzen dituzte eta lortzen dute ondorioz euren kalitate sistemaren ziurtagiria.

Dagoeneko Espainiako Estatuko Lanbide Heziketako hainbat ikastetxetan egin dira kalitate sistemak aplikatzeko saioak, ikastetxe asko baitago murgilduta kalitate prozesuetan. Erakunde zenbaitek kalitatea bultzatzeko ematen dituzten kalitate sariak izaten dira esperientzia horietako askoren akuilu.

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa

1998an Ministerioak sistema bat sortu zuen kalitate sistemak ikastetxeetan sartzeko laguntzeko, bereziki KKEE eremuan zentratu, nahiz eta aldaketa batzuk eginik sistema hori osatzen duten elementuen ponderazio orokorrean. Sistema probintziak antolatuta egon zen Ministerioak zuzenean kudeatzen zuen lurralde esparruan. Ikastetxeetan kalitate talde bat sortzen da eta bera arduratzen da autoebaluazioa egiten, hobetu daitezkeen esparruak identifikatzen eta hobekuntza planak proposatzen klustroak eta eskola kontseiluak onartu ditzaten. Era berean, eta hezkuntza kalitatearen hobekuntza bultzatzeko eta KKEEa unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan zabaltzeko laguntzeko, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak Hezkuntzako Kalitatearen Saria sortu zuen, urtero deitzen dena. Azken deialdia 2002ko ekainean egin zen.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila

1994an SAREKA-Lanbide Heziketa Publikoko Kalitatea izeneko ekimena jarri zen martxan, kalitatearen kudeaketa hezkuntzako esparru horretara hedatzeko asmoz. Aukeratutako sistemak gorago esan diren eredu bie-

tako elementuak biltzen ditu: ISO 9000 arauak —bere estandarizazio eta zertifikazio kontzeptuak baliatzeko— eta KKEE sistema —autoebaluazio prozesuak hemendik egokitze—. Proiektua aplikatzerakoan, ikastetxeetan funtsezkoak diren bi figura baliatzen dira: zuzendaria, prozesuko lider gisa aritzen dena, eta kalitate arduradun bat, zeregin hori betetzeko berarik sortua.

Ikastetxeetako zuzendari eta arduradunen lidergoaren bitartez Lanbide Heziketako ikastetxeetako kudeaketa hobetzea da Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeen ebaluazio ereduaren asmoa. Hori egiteko, bederatzi erreferentzia irizpide zehaztu dira enpresa ertain eta txikietarako diseinaturako KKEE ereduari dagozkionak eta ikastetxeen errealitateari egokituak. Irizpide bakoitza azpi-irizpidetan eta ebaluazioko orientazio esparrutan zaitzen da, zeinek, batetik, adierazle bakoitzaren ezaugarriak zehazten dituzten eta, bestetik, iradokizunak hornitzen dizkioten programa barruan sartzen diren esparruetarikoren batean hobekuntza prozesuren bat martxan jarri nahi duen erakundeari.

Lanbide Heziketako zentroek kalitateko ziurtagiria eska dezakete, finkatu diren bederatzi adierazleekiko erakundeak duen egoera islatzen duen dokumentu-txosten bat aurkeztuz. Ondoren, ebaluatzaile taldeak azterketa prozesu bat hasten du REDER izeneko protokolo bat aplikatuz. Protokolo horrek berrikuspena gidatzen du alderdi hauetan oinarriturik:

- Erakundearen emaitzak edo lorpenak.
- Erakundeak erabilitako ikuspegi edo plangintza.
- Burututako despliegea edo ekintzak.
- Prozesuei buruz erakundeak egindako ebaluazio eta berrikuspena.

Ebaluazioa egiterakoan kontuan hartzen da bai ikastetxeak aurkeztutako dokumentazioa eta baita ere aurretiaz zehaztu diren bikaintasun maila jarraituz ikusten diren kalitate ebidentziak. Azkenik, ziurtagiri bat ematen zaio ikastetxeari non jasota geratzen den lortu duen puntuazioa³ eta planifikatutako emaitzak lortzeko prozesuen kudeaketa sistematikoa. Erakundeak berak aukera dauka aldian behin bere eraginkortasuna neurtzeko, inkesten bitartez jasoz emaitza akademikoak, erabiltzaileen satisfazio maila eta ikasleen laneratze indizeak.

Gaur egun, ebaluazio lana Lanbide Heziketaren Konpetentzia eta Kalitatea Baloratzeko Euskal Agentziak egiten du. Bere zeregina da, besteak beste, Lanbide Heziketako sistemaren kalitatea bermatzeko behar diren ebaluazio tresnak finkatu eta bultzatzea. Horrezaz gain, ikastetxeak homo-

³ Puntuazioa kalkulatzeko 1.000 puntu hartzen dira erreferentziazat; horietatik 500 eragile eta prozesuen ebaluazioarekin lortu daitezke eta gainerakoak emaitzen ebaluazioaz. Azpi-irizpide bakoitzari portzentaje standard batzuk egokitzen zaizkio. Hartara, zertifikazioak islatzen ditu bai emaitzak eta baita ere emaitza horiek iristeko erabilitako ikuspegi eta prozesuak.

logatzen ditu eta ezarritako arauen arabera konpetentziak ebaluatu eta zertifikatzen ditu.

Gaur egun 35 ikastetxek daukate ISO 9000 ziurtagiria, eta 53 ikastetxe biltzen dituen SAREko (Lanbide Heziketako Ikastetxe Publikoen Elkarte-ko) ikastetxe integral guztiak KKEE autoebaluazio ereduak aukeratu dute eta aurreikusita daukate 2004. urterako kanpo ebaluazio batean 400 puntuak lortuko dituztela.

Lanbide Heziketaren kalitatea ezin bereizi daiteke lan erakundetan nagusi dabilen kalitate nahikundetik; Lanbide Heziketa zenbat eta lan mundutik hurbilago kokatu nahi den, hainbat ahalegin gehiago egin beharko da bere kalitatea hobetzeko. Nolanahi ere, geure buruari egin diezaioketun galdera da ea Lanbide Heziketaren birkualifikazio sakonak ez ote duen eskatzen lotura guztiak haustea ikastetxeetako kultura eta egitura tradizionalarekin. Funtzionakera propioz hornitutako Lanbide Heziketako ikastetxe espezifikoak bultzatzea —Euskal Autonomia Erkidegoan egiten den bezala— da zalantzarik gabe jarraitu beharreko bidea.

Jasotze-data: 2003-04-10

Onartze-data: 2003-11-10

Abstract

In the European Union a great deal of hard work is being undertaken in order to improve training within it. Manifestations of this are the summit celebrated in March 2000 in Lisbon, the objectives and criteria accepted in the Stockholm Assembly in March 2001 or the five operational objectives to be fulfilled by the year 2010 which were defined by the European Commission in 2002. This article analyses the characteristics of Professional Training within the Spanish State to later pass on to point out the weaknesses of the Basic Professional Training and to analyse the possibilities which the Specific Professional Training can offer. In reference to the Basque Autonomous Community some figures and experiences are presented which lead to the consideration of the centres of Professional Training of the aforementioned community as pioneers and even as models.

Keywords: Education System. Vocational Training. Technological education. Quality of Education.

En la Unión Europea se está trabajando firmemente en la mejora de la formación profesional dentro de ella. Manifestaciones de ello son la cumbre celebrada en marzo de 2000 en Lisboa, los objetivos y criterios aceptados en la asamblea de Stockholme en marzo de 2001 o

los cinco objetivos operativos a cumplir para el año 2010 que fueron definidos por la Comisión Europea el año 2002. Este artículo analiza las características de la Formación Profesional dentro del Estado Español para pasar posteriormente a destacar las debilidades de la Formación Profesional Básica y analizar las posibilidades que ofrece la Formación Profesional Específica. En lo referente a la Comunidad Autónoma Vasca se presentan algunos datos y experiencias que dan pie a considerar a los centros de Formación Profesional de dicha Comunidad Autónoma como pioneros e incluso como modelo.

Palabras-clave: Sistema Educativo. Formación Profesional. Educación Tecnológica. Calidad de la Educación.

Au sein de l'Union Européenne on œuvre avec fermeté pour l'amélioration de la formation professionnelle dans l'Union. Pour preuve, le sommet qui s'est tenu en mars 2000 à Lisbonne, les objectifs et critères ratifiés lors de l'assemblée de Stockholm en mars 2001 ou les cinq objectifs opérationnels à remplir pour l'an 2010 qui ont été définis par la Commission Européenne en 2002. Cet article analyse les caractéristiques de la Formation Professionnelle au sein de l'État Espagnol pour ensuite souligner les faiblesses de la Formation Professionnelle de Base et analyser les possibilités qu'offre la Formation Professionnelle Spécifique. En ce qui concerne la Communauté Autonome Basque, on présente quelques données et expériences qui donne l'occasion de considérer les centres de Formation Professionnelle de cette Communauté Autonome comme des pionniers et même comme des modèles.

Mots clé: Système d'enseignement. Formation Professionnelle. Éducation Technologique. Qualité de l'éducation.

Bibliografía

- CASTELLS, M. (1997): *La sociedad red*, Alianza, Madril.
- CIVIT, C. eta MARCH, M. (2000): *Implantación del teletrabajo en la empresa*, Gedisa, Bartzelona.
- CÓRDOVA, P. (2002): «La formació a les empreses espanyoles. Claus i referències empíriques per a incrementar-ne el valor i l'eficàcia», *Revista Econòmica de Catalunya*, 44, 57-69. ork.
- DAVIES, D. (2002): «Aprendizaje y trabajo: un catálogo de innovación y la APEL», in TEARE, R.; DAVIES, D. y SANDELANS, E.: *Organizaciones que aprenden y formación virtual*, Gedisa, Bartzelona, 45-68 ork.
- POWER, C.N. (1999): «La enseñanza técnica y profesional en el siglo XXI», *Perspectivas*, XXIX. alea, 1. zenbakia, martxoa, 33-42. ork.
- SENNET, R. (2000): *La corrosión del carácter*, Anagrama, Bartzelona.